



**ZUREA, NIREA
DENONA!**

0. AZALA

Zer egin dezakezu zenbaki honen azalarekin jolasteko?

Hartu aldizkaria esku artean, eta, haurra inguruan duzula, azalera begira jarri, eta hasi barrez.

Haurra gerturatzen bazaizu, seinale ona izango da: haren arreta zeureganatu duzu!

Utzi haurrari azala arakatzen, eta galdetu ea zer jartzen duen goiko bunbuiloan, eta pentsa dezala ea zer esan nahi duen hor adierazten denak. Ea zer bururatzen zaion...

Ondoren, adieraz iezaiozu, bunbuiloan jartzen duenak esaten dizuna...

2. AURKIBIDEA

Aurkibidearen atalean, eskuinaldeko testutxoa erabiltzen dugu normalean. Testu horretan, aldizkariaren gaia jorratzen da; beraz, anitz interesgarria da hor idatzirikoa haurrari adieraztea.

Gure proposamena da irakurtzea testutxoa haurrari. Eta, irakurri eta gero, galdetzea haurrari ea irakurri dugun horretatik zein ideiarekin gelditu den, zer iritzi duen, eta abar.

3. PUPU ETA LORE

Badakigu, bai, Pupu eta Loreren olerkiak izugarri politak direla, eta oso dibertigarriak!

Olerkiekin egiteko, hona hemen zer proposatzen dizuegun:

Proposatu haurrari olerkitxoak berak irakurtzea. Baina, irakurtzen hasi aurretik, adieraz iezaiozu denak irakurri eta gero komikietariko bat aukeratu beharko duela.

Aukeraketa egiteko, berak normalean egiten duen ekintza batekin lotu beharko du, alegia: aukeratzen duena erdibana sehaska eta bainuontzia bada, berak esan beharko du hori aukeratu duela, antzeko beste ekintza bat egiten duelako berak ere. Eta ekintza hori zein den esan beharko du.

Ondo pasa, mahaspasa!



**ZUREA, NIREA
DENONA!**

4. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Gure familiaren komikia irakurtzeko, hau proposatzen dizuegu:

Esango diozu haurrari komikia irakurri aurretik, lehen begirada batean, bunbuiloetan jartzen duena bakarrik irakurri ahal izango duzuela. Horrekin eta irudiekin, istorioa asmatu beharko duzue.

Amaitutakoan, istorio erreala irakurtzera animatu haurra. Ea zenbaterainoko antza duten zuek asmatu duzuenak eta testuan idatzirik dagoenak!

5. TIRITATXO

Tiritatxoren atalean, bere kabuz irakurtzera animatuko dugu haurra. Batzuetan, aproposa bezain beharrezkoa izatean da bakarrik eta lasai uztea haurra, baita irakurketaren bidea bere modura egiten uztea ere.

Ea nola egiten duen irakurketa... Gogoratu hortik ere informazioa jaso dezakezula!

6. MARIMATRAKAK

Noaren eta Learen istorio honetan murgiltzeko, hau proposatzen dizugu:

Hasi zu zeu istorioa irakurtzen, poliki-poliki, zure ahots tonua eta erritmoa zainduz... Eta, une batean (zuk erabaki noiz), utzi irakurtzeari. Esan beste zerbaitetan aritu behar duzula eta ezin diozula testua irakurri, asko sentitzen duzula, baina beste noizbait izan beharko duela...

Ea haurraren kuriositatea piztea lortzen duzun!



**ZUREA, NIREA
DENONA!**

7. BARATZE URBANOA: KARAKOLA ETA BAREA

Honako honetan, zera egin zenezake:

Irakurri ozen izenburua: «Espezieak!».

Hori esan eta gero, galdetu haurrari ea espezieren bat ezagutzen duen...

Esan haurrari Baratze Urbanoko laguntxoak diotena ondo baino hobeto etorriko zaizuela, hain zuzen, espezieen inguruan irakurtzeko eta ikasteko.

Irakurri gustuko duzuen eran, eta, amaitutakoan, albakarekin egindakoa egitea proposatzen dizuegu!

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Bertso hauetan, gauza asko esaten digute beti, eta, orri hauetan, informazio pila ematen digute. Beraz, gure proposamena da horiek irakurtzea, eta, gero, irakurritako horren inguruan lasai eta luze hitz egitea. Informazioa ematea eta jasotzea, irakurritako horren inguruan hausnartzea, gogoeta egitea... Seguru gaude baliagarria izango zaizuela, bai haurrari eta bai zuri.

9. LAGUN

Atal honetan, partekatzea landuo dugu.

Adibide oso ederra jarri digute Lagunek eta bere lagun ahateak.

Komikia irakurri ondoren, hurrekin galdera batzuk landu ditzakezue:

Zer gertatzen ari da?

Zer da partekatzea?

...



ZUREA, NIREA
DENONA!

10. EUSKAL HERRIKO ANIMALIA: SORBELTZA

Euskal Herriko animalien artean, sorbeltzari egiten diogu tartetxoa. Irakur ezazu sorbeltzaren inguruan idatzi duten informazioa, baina adi! Sakon irakurtzeko eskatzen dizuegu.

Sorbeltzaren inguruko irakurketa egin behar duzuen guztiok, bada, adi-adi irakurri beharko duzue, eta, beharbada, behin baino gehiagotan irakurtzea ere komeniko da.

Jarraian, estali egingo ditugu testuko hainbat zatitako zenbait hitz, eta beste orri zatitxo batzuetan idatziko ditugu hitz estaliak.

Ondoren, denbora jakin batean orri zatiak eskuan dituzuelarik, hutsuneak betetzen hasi beharko duzue.

Ea hitz guztiak bere lekuan jartzeko gai zareten, denboraren barruan!!

11. FILOSOFO TXIKIAK

Oraingo honetan, irakurketa konpartituko dugu.

Lau pertsona beharko dituzue, eta horietako bakoitzak komikiko pertsonaia bat hartu edo hautatu beharko du.

Pertsona bakoitzak zerbait jantzi, margotu... beharko du komikiko pertsonaiak ordezkatzeko.

Kontuz! Irakurketarekin hasten zaretenean, errespetatu hor agertzen diren harridura markak, galdera markak ...

Irakurketarekin amaitutakoan, elkarri galdetu honako hau:

Zer da partekatzea?



ZUREA, NIREA
DENONA!

Zergatik partekatu behar dugu?

Guk daukagun guztia partekatu behar dugu?

12. MARTIN BERTSO

Oraingo honetan, imajinazioa landuko dugu. Gure proposamena:

Lehendabizi, komikia irakurriko dugu. Eta, amaitutakoan, honako galdera hauek egin elkarri:

Zer esan nahi dute, adierazpen hauek?

«Begiak dauzka egiak», eta «Izan nire kidea» «banatu ditzagun zapatak eta bidea».

Komikia irakurri ondoren, estali komikiko laino guztiak, eta asmatu irakurri duzuen horrekin zerikusirik ez duen istorio bat.

Galdetu haurrari ea laguntzea nahi duen edo ez. Amaitutakoan, interesgarria izan daiteke zuen inguruko lagunei kontatzea!

ANIMATU! EA LORTZEN DUZUEN BESTELAKO ISTORIO BAT OSATZEA!

13. MARIKALANBRE

Honako hau izango da gure proposamena. Hau azaldu beharko diozu haurrari:

«Esperimentua egin nahi baduzu, orrialde batean puntuka idatzi beharko duzu bi liburu zer-nola elkartu beharko dituzuen».

Horrela, irakurritakoa ulertu duen edo ez frogatu ahal izango dugu.

Baina, betiere, haurra motibatuz (kasu honetan, badaki lanketa horren ondoren esperimentua egingo duela).

EA LORTZEN DUZUEN!



**ZUREA, NIREA
DENONA!**

14. LARGABISTA

Irakurketarekin hasi aurretik, jolas bat egitea proposatzen dizuegu:

Denbora jakin batean (haurren adinaren arabera zehaztuko duzue denbora), komikiko hainbat elementu aurkitu beharko dituzue.

Komikian agertzen den edozer gauza izan daiteke elementu horietako bakoitza: hitzak, arropak, pertsonaia kopurua, koloreak...

Jolas honekin, helburua da komikia aurrez lantzea; hala, modu dibertigarri batean, jarraian irakurri eta ikusiko dutenaren gaineko ezagutza orokor bat izango dute.

15. HAUR KANTAK

Atal honetara iritsitakoan, gure nahia da zuek irakurritako kantuak ikastea eta erabiltzea. Izan ere, askotan, irakurri egiten ditugu, baina hortxe gelditzen da, aldi bateko irakurketa soil batean.

Hasteko, pare bat astegun hautatuko duzue, eta egun bakoitzean kantu bat irakurri eta ikasiko duzue.

Ondoren, asteko beste bi egun aukeratuko dituzue, kantuak elkarri kantatzeko.

Zuek aukeratu eguneko zein tartetan. Bazkalordua dela adierazteko orduan, oheratzeko ordua denean....

ANIMATU GUSTATUKO ZAIZUE!!



ZUREA, NIREA
DENONA!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Irakur ezazue, lasai-lasai eta leku goxo batean, Aneren, Patakonen eta Juneren istorioa. Komikia goitik behera irakurtzen duzuenean, hauxe izango da gure proposamena.

Lehenik eta behin, komikian irakurri duzuen elkarrekin konpartituko duzue, eta hausnarketa txiki bat egin. Horretarako, galdera batzuk eginiezazkiezue haurrei: esaterako, zer da ospitale bat? Zeri buruz hitz egiten dute bi neskek?, eta beste hainbat

Ondoren, marrazkitxo bat egitea proposatzen dugu, komikia gaitzat hartuta.